

5. PLANAREN HELBURU OROKORRAK

5.1. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA ANTOLATZEKO LURRALDE-EREDUA. JARDUERA-ESPARRU ESTRATEGIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Jardueretarako Lurzoruaren antolamendua sistematizatzeko lehen ekarpen gisa, hiri-plangintza arautzeko eta sustapen publikoko poligono estrategiko berriak kokatzeko lehentasunezko puntuei buruzko erabakiak hartzeko jarraibide eta elementu gidari gisa erabili ahal izango den "egitura marko" bat aukeratzea proposatzen da.

Jarduera ekonomikoaren esparru estrategikoen lurralde-identifikazioa LAAetan planteatutako Hiri Sistemaren egiturak Euskal Autonomia Erkidego osorako definitutako lehen geruza batean sostengatzen da. Aipatutako sistema honako azterlanean grafikoki jasotzen da [2.3 mapan](#).

Halaber, "lurralde-antolamenduaren" konfigurazioaren funtsezko osagaiak dira garraio eta komunikabideen oinarritzko sarea osatzen duten elementuak: autobideak, autobideak eta lehen mailako errepideak, trenbide-sarea, Bilbo eta Pasaiako portuak eta Sondika, Foronda eta Hondarribiko aireportuak.

Halaber, komunikabideen sare orokorraren barnean pieza garrantzitsutzat jo behar dira Bermeo, Ondarroa eta Getariako portuak Zaisa (Irun) eta Aparcabisa (Trapaga) garraio-zentro logistikoak, Gasteizko Garraio Zentroa (Gasteiz) eta Jundizko (Gasteiz) modalitate arteko trukatzailerak. Elementu hauek guztiak [2.2. mapan](#) grafikoki irudikatzen dira.

Elementu hauek eskura dagoen lurralde-euskarriaren geruzan ([2.1 mapa](#)) gainjartzeari esker, jarduera ekonomikoaren ezarpen berrien hazkundea eta etorkizuneko hedapena barne hartzeko eskura dauden ardatzak eta esparruak espazioan mugatu daitezke.

Jarduera ekonomikoaren esparru estrategikoen funtsezko egitura **jarduera logistikoen** hiru "gune" edo zona nagusiren definizioan oinarrituta antolatzen da.

"Jarduera Logistikoen Zona" hauek kontzentrazio demografiko handiena eta ekonomia-jardueren garapen trinkoena duten guneei dagozkie eta bertan biltzen dira garraio eta komunikabideen azpiegitura handiak indartzeko aurreikuspenak.

Jarduera ekonomikoaren grabitate-zentro diren zona hauen inguruan, edo elkarrekin lotzen dituzten iraganbideetan sostengatuta, lehentasunezko garapen-eremu berriak sustatu behar dira, garraio eta komunikabideen sistemarekiko kokapen estrategikoari zuzenean lotuta.

Jarduera logistikoen lehentasunezko hiru zonek honako lurralde hauek hartzen dituzte:

- Bilbo Metropolitarra. Eremu metropolitarra Abrako Kanpoko Portuak, Asuako haranak eta Txorierriko iraganbideak etorkizunean Durangalderantz izango duen irteerak osatzen duten erpinen artean kokatzen da.
- Donostialdea-Bidasoa beheera iraganbidea. Penintsulatik Frantziarantz irteteko eta Pasaiaiko Porturantz jotzeko komunikabide-ardatz guztiek bat egiten duten esparrua.
- Gasteiz-Miranda iraganbidea. Garraio eta komunikabideen sistemaren egitura orokorraren barruan ardatz estrategikoa da (Iparretik Hegoalderako ardatzaren eta Ebroko iraganbidearen arteko lotunea) eta gainera ekonomia-garapen berriak jasotzeko espazio-aukera paregabeak ditu.

"Gune" nagusi hauez gain, beste hainbat eremu estrategiko antzematen dira, eskualde-egituren buru nagusien inguruek eta komunikazio-iraganbideetan zehar dauden korridore bereziek osatutakoak.

Eremu hauek guztiak LAPen "**lehentasunezko eremu**" gisa definitzen dira, hiriko jarduera ekonomikorako eta hirugarren sektorekorako garapen berriak kokatzeko.

Bizkaiko lurralde historikoa:

Bilbo Handiko eskualdea, itsasadarraren birmoldaketaren eta kanpoaldeko portuaren hedapenaren inguruan. Adarkatze garrantzitsuenak Nerbioi (Laudio, Amurrio), Ibaizabal (Zornotza, Durangaldea) eta Asuako (Txorierri) haranei eta Derio-Mungia eta Leioa-Plentzia iraganbideei jarraiki.

Erreserba moduko hedapen posible berriak Barbadun (Somorrostro, Sopuerta), Kadagua (Sodupe, Zalla) eta Arratiako (Igorre) haranetan.

Bizkaiko gainerako jarduera-guneak hazkunde endogenoko eskualde-guneak dira: Bermeo, Gernika, Markina eta Ondarroa.

Arabako lurralde historikoa:

Gasteizko erdigunea eta Miranda (Langraiz Oka), Bilbo (Etxabarri Dibina), Durango eta Debagoiena (Miñao eta Legutio) eta Gipuzkoa eta Nafarroarako (Agurain eta Araia) irteeren inguruko adarkatzeak.

Miranda de Ebroren inguruan, A-1 eta A-68 (Ebroko iraganbidea, N-1 errepidearen ardatza) autobideen elkargunean dagoen komunikabide-gunea.

Oion eta Biasteri-Casablancako zona, Logroñoren hedapenaren babespean ekonomia hazteko ahalmena duena.

Gipuzkoako lurralde historikoa:

Donostialdea-Bidasoa Behereko eskualdea. Pasaiako portuaren kanpo-hedapeneko aukeren azterketa. Gaintxurizketako iraganbidearen eta Urumeako iraganbidearen garapena.

Oriako iraganbidea. N-1 errepidearen ardatza, Madril-Irun trenbidea (Andoain, Tolosa, Beasain) eta Urola Garairainoko hedapena.

Urola Behereko harana (Zumaia, Arroa), nolabaiteko hedapen-ahalmena duen zona. Urola Erdialdea (Azpeitia, Azkoitia) eta Zarauzko udalerria ere hazkunde-ahalmena duten zonak dira.

Debako harana. Debabarrena (Elgoibar, Eibar, Ermua, Sorluze) eta Debagoiena (Bergara, Arrasate). Espazioari dagokionez aseta dauden eskualdeak, espazio-kontsumo txikiko garapen berriekin konbinatutako birmoldaketa-eragiketetan espezializatu behar direnak.

[5.1 zk. mapan](#), LAPea industria-jarduera garatzeko jarduera logistikoko zona eta lehentasunezko eremutzat jasotzen diren lurralde-eremuen adierazitako mugaketa grafikoki jasotzen da.

5.2. LURZORUAREN KUDEAKETAREN LURRALDE-EGITURAKETA

Lurraldearen Arloko Planak ekonomia-jardueretarako lurzoria etorkizunean antolatu eta kudeatzeko funtsezko irizpide gisa ezartzen du udal-egitura pixkanaka gainditzea eta eskualde-mailako logika aukeratzea produkzio-lurzoruak sustatu eta garatzeko politikak sistematizatzeko. Horrenbestez, lurzoria antolatu eta kudeatzeko nolabait ere tresna handiagoak, eskualde-mailakoak, sortzea proposatzen da; tresna hauetan eskualde bereko udalerri guztiek batera parte hartuko lukete, poligono jakin baten kokaleku zehatza edozein izanik ere.

Horretarako, Lurraldearen Arloko Planaren tresna-arloko proposamen gisa, lurraldea zatitzeko egitura jakin bat planteatzen da, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan onartutako eskualde-egituren mugaketari nagusiki jarraituz, zenbait kasutan azpieskualde edo eskualde jakin batzuen berariazko problematiketara neurri handiagoan hurbiltzeko aukera emango duena, batez ere hiri-plangintzari eta ekonomia-jardueretarako lurzoruaren antolamendu, kudeaketa eta sustapenari dagozkien arazo guztietan.

Eskualde-egituren araberrako erreferentziekin, honako lurralde-zatikatzea proposatzen da ([ikus 5.2 mapa](#)). Agian, aipatzekoa da Ego ibaiaren arroari buruzko erreferentzia. Hiru eskualde-egituratako udalerri bana biltzen du eta horiek Debabarreneko eskualde-egituraren zerrendan jasotzen dira.

Arabako erdialdeko eskualde-egitura

5 azpieskualde bereizten dira.

- Arabako Lautada

Dulantzi, Asparren, Barrundia, Burgelu, Iruraitz-Gauna, Agurain, Donemiliaga eta Zalduondo.

- Gasteizko azpieskualdea

Gasteiz, Oka-Iruña, Zigoitiko udalerriko Hegoaldea, Etxabarri-Dibinari dagokiona, eta Arratzu-Ubarrundiako Hegoaldea, Durana eta Mendibili dagokiena.

- Gorbeia Inguruak

Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia (Etxabarri-Dibinako ingurua izan ezik), Legutio, Arratzu-Ubarrundia (Durana eta Mendibilgo ingurua izan ezik), Otxandio, Ubide eta Aramaioko udalerriaren mugaketaren zatia.

- Arabako Haranak

Aramiñon, Beranturi, Koartango, Lantaron, Erribera Goitia, Erribera Beitia, Gesaltza, Gaubea eta Zanbrana.

- Arabako Mendialdea

Arraia-Maeztu, Bernedo, Kanpezu, Lagran, Urizaharra eta Harana.

Aiarako eskualde-egitura

Amurrio, Arakaldo, Artziniega, Aiara, Audio, Okondo, Urduña eta Orozko.

Arabako Errioxako eskualde-egitura

Mainueta, Eltziego, Bilar, Kripan, Bastida, Biasteri, Lantziego, La Puebla de Labarka, Leza, Moreta, Nabaridas, Oion, Samaniego, Uriona eta Ekora.

Arratiako eskualde-egitura

Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuri.

Bilbo metropolitarrako eskualde-egitura

6 azpieskualde bereizten dira.

- Kanpoko portua

Bilboko Portu Autonomoari dagokion kanpoko portuaren esparrua.

- Itsasadarra eta Ezkerraldea

Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Erandio (Udondo, Atzaga eta Asuako ibarrak), Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapaga eta Zierbena.

- Bilbo

Bilboko udalerria, bere problematikaren berariazkotasuna dela-eta, kudeaketa-eremu independente gisa bereizten da.

- Leioa-Plentzia iraganbidea edo Eskuinaldea

Barrika, Berango, Getxo, Gorliz, Leioa, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz eta Erandioko udal-mugapearen iparraldea.

- Txorierr

Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudio.

- Nerbioi Beherea

Arrankudiaga, Arrigorriaga, Basauri, Etxebarri, Galdakao, Ugao, Zaratamo eta Zeberio.

Durangaldeko eskualde-egitura

Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar (Ego ibaiaren arroari dagokion udalerri-zatia izan ezik).

Enkartzazioetako eskualde-egitura

Artzentales, Balmaseda, Karrantza, Galdames, Gordexola, Guenes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

Busturialdea-Artibaiko eskualde-egitura

Bi azpieskualde bereizten dira.

- Urdaibai

Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gauegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta.

- Lea-Artibai

Amoroto, Aulesti, Berriatua, Etxebarri, Gizaburuaga, Ipazter, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Ondarroa eta Mutrikuko udalerriko Mijoa ingurua.

Mungiako eskualde-egitura

Arrieta, Bakio, Fruniz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Maruri, Meñaka eta Mungia.

Debagoieneko eskualde-egitura

Antzuola, Aramaio (mugaketaren zatia izan ezik) Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta (Iburerreka zatia izan ezik), Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

Debarreneko eskualde-egitura

Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku (Mijoa ingurua izan ezik), Sorluze eta Ego ibaiaren arroari dagozkion Elgeta eta Zaldibarko udalerrien zatiak.

Donostia-Beterriko eskualde-egitura

4 azpieskualde bereizten dira.

- Bidasoa Beherea
Hondarribia eta Irun.
- Oarsoaldea
Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria eta Donostiako udal-mugapearen ekialdea.
- Donostia
Donostiako udalerria, bere problematikaren berariazkotasuna dela-eta, kudeaketa-eremu independente gisa bereizten da. Hala eta guztiz ere, esparru jakin batzuk beste kudeaketa-azpieroan batzuei esleitzen zaizkie (udalerriaren ekialdea eta Zubietako kokalekua).
- Donostialdeko hego-mendebaldea
Andoain (Adunako ibarrari atxiki dakiokkeen Balastrain-Matxinea poligonoa izan ezik), Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil eta Donostian dagoen udalerriko Zubietako kokalekua.

Goierriko eskualde-egitura

2 azpieskualde bereizten dira:

- Oria Garaia
Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria (Alegiako Santa Lutziko ibarra izan ezik), Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain.
- Urola Garaia
Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu, Zumarraga eta Gabiriako udalerriari dagokion Alegiako Santa Lutziko ibarra.

Toloserriko eskualde-egitura

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Billabona, Zizurkil eta Andoaingo udalerriko Balastrain-Matxinea poligonoa.

Urola-Kostako eskualde-egitura

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

Laburbilduz, Lurraldearen Arloko Planak hauxe proposatzen du: ekonomia-jardueretarako lurzorua antolatzeke logika, lurzoruek eskualde-mailan kudeatzeko estrategiak eta lurzoru publiko berrien sustapena aurkeztutako lurralde-egituraren arabera arautzea. Horretarako, administrazioaren instantzia desberdinek ahaleginak egin beharko dituzte udal-mugaketen oinarri tradizionalak pixkanaka gainditzeko eta formula berriak arbitratzeko udalen arteko lankidetzak bideratzeko eta ekonomia-jardueretarako lurzoru eskualde-mailan kudeatzeko.

Lurralde-zatikatzearen zerrendan zehatz-mehatz adierazi dira hainbat esparru, non udalerri jakin batzuetako lurzoruen zati baten lurralde-adskripzioa beste eskualde-egitura edo azpieskualde bati esleitzen baitzaio ([ikus 5.2 mapa](#)). Xehetasun hauek ematen dira, ekonomia-jardueretarako lurzoruaren antolamenduaren berariazko ikuspegitik begiratuta, lurzoru hauetako bakoitzaren hiri-plangintza eta kudeaketa lurzoruaren benetan kokatuta dagoen esparrutik bideratu behar dela irizten zaiolako, nahiz eta administrazio bati beste lurralde-eremu batekoa izan. Salbuespen hauek dagozkien Lurraldearen Zatik Planetan aintzat hartu beharko dira, eta plangintza bateratzeko egokitutako jotzen diren formulak ezarri.

Jakina, dokumentu honetan planteatutako lurralde-zatikatzea ez da zehaztapen aldagaitza; aitzitik, denboran zeharreko ekarpen dinamikotzat hartu beharko da eta, horrenbestez, lurraldearen okupazioaren garapenaren eta sortzen diren eskari sozial eta administrazioen eboluzioaren arabera berrikusi eta aldatu.

5.3. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA ANTOLATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Jarduera ekonomikoetarako lurzuaren eskuragarritasunak berebiziko garrantzia du ekonomian eta gizartean. Gainera, zalantzarik gabe, lurralde-eragin handiko hirigintza-eskakizuna da. Horrenbestez, komeni da industria-lurzorua kudeatu eta garatzeko erabakiak hartzerakoan lurralde-antolamenduaren arloko ikuspegitik kontuan hartuko diren irizpide orokorrak ezartzea.

Lurraldearen antolamendu-eredua eta jarduera-esparru estrategikoak ezarrita eta lurzuaren lurralde-antolamenduko eta hirigintza-kudeaketako prozesuetan gero eta neurri handiagoan eskualde-mailan egiteko bidean aurrera egin beharri buruzko estrategia orokorra onartuta, politika hau gidatu behar duten irizpide orokor nagusiak ezartzea komeni da.

Honako hauek adieraz daitezke:

a) Ingurune naturalari eta garapen jasangarriari dagokienez

- Gure gizartean ingurumenaren gainean dagoen gero eta sentikortasun handiagoarekin bat etorritik, jarduera ekonomikoetarako hiri-garapen berriak dituen lurzorua okupatzeko prozesuei ekin aurretik, lurraldearen hartzeko ahalmenari buruzko azterlan haztatua egin behar da, ingurumen-ezaugarrien arabera, eta industria-poligono eta saltoki handi berrien inguru naturalaren gaineko eragina eta integrazio paisajistikoa ebaluatu behar dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan lurzoru lauaren hirigintza-okupazioak inguru naturalaren gaineko eragin handia kontuan izan beharra dakar, batez ere Kantauriar isurialdean, ia haranetako hondoetako terraza alubialetakoa baita lurzoru bakarra. Lurraldea antolatzeke edozein azterketak aurre egin behar dion oinarritzko arazoa da hau.

Produktzio-jarduerak zuzeneko ekintza eragiten diete lurraldeari eta ingurumenari plano bereizietan. Alde batetik, aldaketa fisikoa eragiten dute inguru naturalaren gaineko zuzeneko eraginaren ondorioz (lurzorua galtzea, baliozko lurzoruak okupatzea, enklabe naturalak hondatzea) eta, bestetik, oreka ekologikoak aldatzen dituzte eta ingurumenaren narriadura orokorra eragiten dute (poluitzaileen emisioa, hondakinak sortzea, ibai eta itsasertzen poluzioa, soinu-poluzioa, paisaiaren gaineko eragina eta abar).

Eusko Jaurlaritzaren politika guztiak adierazitako eraginak ingurumena babesteko Europako joera berrien ildoan zuzentzera bideratu behar direnez gero, inguru fisikoa ahalik eta hobekien zaintzea eta ingurumena errespetatzeko kotarik handienak proposatzea izango da lurraldea antolatzean eta, horrenbestez, ekonomia-jardueretarako lurzorua hirigintza-arloan arautzean topatuko den arazo nagusia.

Ildo honetan, Lurraldearen Arloko Plan hau lantzeko, landa-garapenari eta ingurune naturalaren babesari buruzko legezko eta araubidezko xedapenak bereziki kontuan hartu dira, bai eta gai honen inguruko lurraldearen arloko bestelako planak ere, bai dagoeneko landutakoak bai eta bideratzen ari direnak ere. Zehazki, kautelazko babes-neurriak xedatzen dituzten, baliabide naturalak zaintzera edo ustiatzera zuzendu behar diren eremuak zehazten dituzten eta, lurraldearen hartzeko

ahalmenaren arabera, garapen-proposamenek bete beharreko erabilera baldintzak adierazten dituzten legezko eta araubidezko xedapen nagusiak aztertu dira, ondoko hauek hain zuzen

- 3/1998 Legea, Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorra.
- 5/1989 Legea, Urdaibaiko biosferaren erreserba babestu eta antolatzea eta 258/1998 Dekretua, Urdaibaiko biosferaren erreserbaren gizarte- eta ekonomia-jarduerak amortizatu eta garatzeko programari buruzkoa.
- 10/1998 Legea, Euskal Herriko landa-garapenari buruzkoa, Mendikoi-k landutako landa-garapenerako programak eta 2. landa-helburu gisa definitutako udalerrien mapa barne direla.
- Natura 2000 Europako Sarea, babestutako espazio natural, Elkartean garrantzia duten leku eta ingurumena bereziki babesteko zona gisa zehaztutako esparruak bereziki kontuan izanda.
- Nekazaritza eta basoetako LAP, balio estrategiko handikotzat kalifikatutako lurzuak zehazten dituen mapa bereziki kontuan izanda.
- EAEko ingurumeneko esparru-programa (2002-2006). Garapen jasagarriko euskal ingurumen-estrategia.

Uraren ziklo integralaren ondoriozko arazoei dagokienez, garapenak arautzearen ikuspegitik, honako araudi-esparrua kontuan hartu beharko da:

- Estatuko oinarrizko legeria. 1985eko Uren Legea eta 1999ko haren aldaketa, bai eta Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Araudia eta Uraren eta Plangintza Hidrologikoaren Administrazio Publikoari buruzko Araudia ere. Uren Legeak mugatu egiten ditu Jabari Publiko Hidraulikoa eta hari lotutako babes-zerrendak, esparru horretako erabilerak eta, baliabide gisa, urarenak arautuz. 1988ko Itsasertzen Legeak Itsas Lehorreko Jabari Publikoa eta hori lotutako babes-zerrendak zehazten ditu eta, era berean, esparru horietako erabilerak arautzen ditu.
- Uraren Esparru Zuzentaraua 2000/60/EB (UEZ). Zuzentarau horrek uren europar politikan jarraitu beharreko irizpideak ezartzen ditu, ingurumen-helburutzat "ur-masen egoera egokia" finkatzen du eta baliabidearen erabilera iraunkorra lortu nahi du. UEZak urei buruzko gainerako europar zuzentzarauen ondoriozko araudiak biltzen ditu (era berean, denboran zehar Estatuko legeriara pasa direnak).
- Arroei buruzko Plan Hidrologikoak eta Plan Hidrologiko Nazionala. Bai Estatuko legeriak bai UEZak ezarritako tresnak dira, finkatutako helburu orokorrak gauzatzeko asmoz. Plan Hidrologiko Nazionalak, beste eginkizun batzuen artean, arroei buruzko gainerako plan hidrologikoak bateratu eta horien artean irizpide homogeneousak ezartzeko balio behar du.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeke Lurraldearen Arloko Plana. Isurialde kantauriarra (415/1998 Dekretua, abenduaren 22koa) eta isurialde mediterraniarra (455/1999 Dekretua, abenduaren 28koa).

b) Lurralde-orekari dagokionez

- Ekonomia-garapena neurritz zabaldu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-egitura eta eskualde guztietara, kasu bakoitzaren berriazko ezaugarriak kontuan hartuta. Honekin esan nahi da industria-zona zaharkituetan eta demografia-gainbeherako eremuetan ekonomia eta demografia suspertzeko neurri bereziak arbitratu beharko direla biztanleriaren iraunaraztea babesteko eta eskualde-egitura bakoitzaren

gizarte-, ekonomia- eta lurralde-profilean hobekien integra daitezkeen ekonomia-jarduerak sendotu eta berriak sustatzeko.

- Lurralde-antolamenduaren ikuspegitik guztiz komenigarria da eskualde-egitura edo eskualde bakoitzean nolabaiteko oreka gordetzea bertako biztanleria aktibo landunaren eta ekonomia-jardueretarako lurzoru behar duten jarduera-sektoreetan dagoen enplegu-kopuruaren artean.

Oreka honi esker biztanle askok eta askok egunero etxetik lanera eta lanetik etxera egin behar dituzten joan-etorri luzeak murriztea lortzen da. Hona hemen joan-etorri horien ondorioak:

- Bizi-kalitatea murriztea: denbora, estresa, arriskua eta nekea, automobil bidezko joan-etorria.
- Diru-galerak: joan-etorrien gastuak, azpiegituren gero eta premia handiagoa.
- Ingurumenerako kalteak: trafikoaren ondoriozko poluzioa.
- Galera funtzionalak: trafiko-asetasuna, auto-ilara handiak puntako orduetan eta aparkatzeko arazoak.

Laburbilduz, etxebizitza eta lanpostua elkarrengandik hurbiltzen baditugu lurralde-antolamendu haztatuaren bidez, bide-azpiegituren beharra arindu ahal izango dugu, komunikabide-sarearen funtzionalitatea egokituko dugu eta, gainera, langileen eta, oro har, biztanleriaren bizi-maila hobetuko dugu.

c) Hiri-egiturari eta erabileren aniztasunari dagokienez

- Irizpide orokor gisa, hiriguneen barruan kokatutako industria-erabilerako lurzoruak bizitegi-erabilerarako berriro kalifikatzeko prozesu berriak mugatu beharko lirateke. Halakoetan, komeni da birmoldaketa-prozesuetan jarduera ekonomikoaren erabilera orokorrari eutsiko dioten prozesuetara jotzea, ezarpen produktibo berriak bultzatuko dituzten berrantolamenduak, enpresentzako zerbitzu-eremuak, tamaina ertaineko saltokiak, hirugarren sektoreko jardueretarako eraikinak, teknologien enpresa-parkeak, bulego-eraikinak, aparkalekuen gune intentsiboak, hornitegiak eta abar aurreikusiz.

Hirugarren sektoreko instalazio horiek guztiak jarduera ekonomikoko ezarpenak dira, hiriguneen barruan inolako arazorik gabe koka daitezkeenak, guztiz bateragarriak direlako bizitegi eta zuzkiduren erabilerekin, eta, gainera, hiri-eremu zaharkituen hirigintza-birkualifikazioko eragiketak sustatzeko bidea ematen dute.

Eragiketa horiek, lehentasunez, lurzoru-eskasia duten eskualde-egituretan eta eskualdeetan bultzatu behar dira. Bertan, instalazio produktibo berriak kokatzeko espazio-baliabideen gabezia dela-eta, lurzoru jarduera ekonomiko berrietara bideratzea komeni da, bizitegi-eraikuntzako erabilerarako aldaketa saihestuz.

Osagarri gisa, hirugarren sektoreko jarduera ekonomiko berriak hiriguneen kanpoaldeko poligonoetan masiboki kokatzeko eragiketak saihestu beharko dira. Izan ere, komeni da espazio-plataforma horiek industrialagoak diren instalazioak barne hartzeko gordetzea komeni da, bizitegiko hiri-ehunarekin bateragarritasun txikiagoa dutelako eta salgaien trafiko astunarekin lotura funtzional handiagoa dutelako. Hirugarren sektoreko eta merkataritzako garapen berriak hiri-inguruan kokatzea baimenduz gero, eta bultzatuz gero ere, instalazio horiek ezinbestean aldendu egiten dituzte jarduera industrialak eta logistikoak. Hain zuzen, jarduera horiek eskuratu beharko lituzkete kanpoaldeko lurzoru sortu berriak.

Laburbilduz, arau orokor gisa hirugarren sektoreko eta merkataritzako ekonomia-jarduerak lehentasunez hiriguneen barruko espazio interstizialetan kokatzea proposatzen da. Industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko eta kondar-hutsune hiritarrak okupatzeko eragiketen bidez lortu ahal izango da helburu hori. Era berean, plataforma estrategiko berriak kanpoaldeko poligono sortu berriak, batez ere, kanpoaldeko gainazalak behar dituzten eta hiri-ehunarekin bateragarriak ez diren industria-plantak eta banaketa- eta garraio-jarduerak barne hartzeko gordetzea proposatzen da; bide batez, eremu horiek saltoki handiekin eta bulego-eraikinekin okupatzea saihestuz. Horiek, lehentasunez, garrantzi txikiagoko esku-hartze mailako hiriguneen barruan kokatu beharko dira, hiri-ingurunera hobeto egokitzen baitira.

- Merkataritza-jarduerari dagokionez, erabilera horiek barne hartzera bereziki zuzendutako espazioen arautzean duten eraginagatik, esan beharra dago bizitegi-eraikinetan behe-oinak merkataritza-lokaletara zuzentzean oinarritutako ohiko eredua krisialdian sartu dela. Errostea ohiturak aldatu direnez eta saltoki txikiak eta handiak ugaltu direnez, komeni da ohiko tipologiaren kontzeptua berriro planteatzea, bizitegi-eraikinen behe-oinetan aurreikus daitekeen beharrekiko merkataritza-lokal gehiegi kalifikatzea saihestuz. Beste hainbeste esan beharra dago orain artean etxebizitza-eraikinetan garatutako hirugarren sektoreko jarduerari dagokienean.

d) Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren dimentsionamenduari eta kuantifikazioari

- Hiri-plangintzan eskualde-egitura edo eskualde bakoitzerako gordetako lurzoru-erreserbek epe labur, ertain eta luzera aurreikus daitekeen eskariaren ezaugarri kualitatibo eta kuantitatiboetara egokitu beharko dute, puzte-ratioa eta lurraldearen espazio-eskuragarritasuna arrazoizko neurri batean bat etorraraziz. Nolanahi ere, teknikoki edo ekonomikoki bideraezinak diren hirigintza-kalifikazioak ezabatu beharko dira, industria-lurzorutik bizitegi-lurzorurako erabilera-aldaketak zuhertasunez aztertu beharko dira eta, industria-garapen berriko eragiketarako lurrak kalifikatu aurretik, eraginpeko lurzoruak eskuragarri daudela bermatu beharko da.

Udal-mailako hiri-plangintzan egin beharreko doikuntza horiek guztiak eskualde-egitura bakoitzerako aurreikusi beharko dira dagokion lurraldearen Zatiko Planean, plangintza-maila handiago batetik udal-plangintza egokitu eta zaintzeko tresna aproposa baita.

- Azkenik, eskualde-egitura jakin batzuetan, litezkeen kanpoko eskari puntualen edota komunikabide-sare orokorrekiko kokapen estrategikoagatik sortutako egoeren ondoriozko litezkeen hirigintza-aurreikuspen bereziak jasotzea komeniko da.

Irizpide horietako bati buruz zehazki, kontuan izanda garapen jasangarriarekiko gero eta sentikortasun handiagoa eta ingurune naturalarekiko errespetu handiagoa, jarduera ekonomikoetarako lurzoru arautu eta antolatzearen inguruko gogoeta batzuk planteatu behar dira.

Ikuspegi orokor batetik, Plan honen metodologia eta garapena informatzen duten ingurumena babesteko irizpideak bi estrategia-mota aplikatzean gauzatzen dira. Lehenengoa prebentiboa, ingurumenari dagokionez oso narriatuta ez dauden zonak kontserbatzera zuzendua, eta zuzentzailea bigarrena, inguru hiritar industrialean aplikatzekoa, dagoeneko narriatuta dauden zonen ingurumen-egoera hobetzea helburu duena.

Lehenengoari dagokionez, esan daiteke egoera naturalean edo aldaketa gutxirekin kontserbatzen diren espazioek duten mehatxu garrantzitsuena hirigintza-ezarpen berriak aurreikustean datzala. Ildo honetan, Lurraldearen Arloko Planak ekonomia- eta produkzio-jardueren garapenetik babestu behar diren eremuak finkatzea komeni dela planteatzen du, landa-inguruan hirigintza-garapen intentsiboko eragiketa puntualak ugaritzea saihestuz.

Garapenaren eskakizun berrien eta ingurumena zaintzeko politikaren arteko beste tirabirak ur-ibilguak ditu ardatz. Izan ere, Kantauriar erlaitzean batik bat, ia ezinezkoa da arro drainatzaile txikiko ubideei ez eragitea, ekonomia-jarduerak ezartzera zuzenduta dauden azalerari dagokionez nolabaiteko garrantzizko lurzoru urbanizagarriko plataforma horizontal berriak sortzean. Ibaien eta erreken ertzak antolatzekeo LAPa onartu zenetik, gai hori jadanik araututa dago.

Lurraldearen Arloko Planean aintzat hartu beharreko gainerako zuzenketa-neurriak, batik bat poluzio atmosferikoari, ibai-arroetara eta itsasertzeko uretara isurtzen diren poluitzaileei, uholdeen prebentzioari, industriako hondakin solidoei eta, oro har, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari eta beste hainbat gairi dagozkienak, indarrean dagoen legeriaren xedapenei (3/1998 Legea, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra) lotuko zaizkie.

Beste gai-multzo garrantzitsu bat, gai geldoen hondakindegia zigilatu ondoren, soluzio konbinatueta lurzoru-zuzkidurak konfiguratzeko aukera posible gisa azaltzen diren abagune eta esparru berriak eta azpiegitura handiak (autobideak, trenbide-sare berria eta abar) eraikitzearen ondoriozko betelaneekin sortutako plataformen aprobetxamendua aztertzeari buruzkoa da.

Izan ere, bilakaera teknologikoari esker goitik behera aldatu da inguru fisikoaren gainean esku hartzeko ahalmena. Ingurumenarekiko sentikortasuna areagotzearen eta ekonomia-garapenaren tratamendu jasangarriko soluzio berriak bilatu behar diren arteko dialektikak lurraldea okupatzeko alternatiba berriak aintzat hartzera bultzatu behar gaitu.

Industriak instalatzeko haranetako hondoetako lur lau urriak okupatzeko aukera tradizionala birplanteatu egin behar da gaur egun. Alternatiba bat, zalantzarik gabe, garapenaren eskakizunek berek sortutako lurralde asaldatuak berrerabiltzearen ondoriozko formulak aplikatu.

Azpiegitura handien, autobide eta trenbide-linea berrien eraikuntzak eta gure hiriguneen garapenaren osagarri gisa eratzen den gibelaldeak hondakindegia handiak sortzea eskatzen dute. Hondakindegioi ustiatzen diren bitartean bertara sartzeko azpiegitura-sarea sortzen da eta, behar duten kamioi-trafiko handiaren ondorioz, ahalmen funtzional handiko bide-elementu gisa konfiguratzeko da azkenean. Bigarren belaunaldi batean espazio hauek eta bertarako sarbide-sistemak ekonomia-jardueretarako poligono gisa birzikla daitezke, hiriguneetatik urrun dauden kokalekuetan daudelako gizarte-erabilgarritasun handirik ez duten berdegune gisa zigilatu beharrean.

Alternatiba hauek geografia malkartsuena duten eta, horrenbestez, espazioa erabiltzeko zailtasun handienak dituzten eskualde-egituretan bereziki aintzat hartzea proposatzen da, Debarrena, Debagoiena, Urola-Kosta, Goierri eta Toloserrikoan hain zuzen, komunikabide-sare berrien eraikuntzak, aldi berean, etorkizunean hirigintza-xedeetarako ekonomia-jardueretarako eremu berriak ezartzeko aprobetxa daitezkeen plataformak sortzeko aukera eman baitezake.

5.4. LEHENTASUNEZKO KOKAPENERAKO JARRAIBIDEAK ETA SUSTAPEN-EREMUAK

5.4.1. LEHENTASUNEZKO KOKAPENERAKO JARRAIBIDEAK

Lurraldearen Arloko Planak ekonomia-jardueren alorrean garrantzi kuantitatibo edo kualitatibo bereziko problematika duten Euskal Autonomia Erkidegoko esparruetarako edo lurralde-ereduaren esparruan estrategikoki kokatuta daudelako etorkizunean ekonomia-hazkunde garrantzitsua izan dezaketen esparruetarako berriazko politikak aurreikusteko komenentzia planteatzen du.

"Lehentasunezko esparru" gisa definitzen diren eremu hauetan ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzorua antolatu, kudeatu, sustatu eta garatzeko lehentasunezko politika proposatzen da. Era berean, aurrak kentzeko prozesuak bultzatzea eta lurzorua ekonomia-jardueretarako eremu berri gisa itzultzea ahalbidetuko duten industria-ehun zaharkituak birmoldatzeko prozesuak bideratzea planteatzen da.

"Lehentasunezko esparruak" 5.1 eta 5.4 mapetan daude mugatuta, LAParen oinarritzko zehaztapen batekin.

Jarduera ekonomikoko ezarpenak kokatzeko jarraibideak sistematizatzeko asmoz, Planak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiak hiru kategoriaren arabera sailkatzea proposatzen du. Udalerri bakoitzean ekonomia-jardueretarako lurzorua duen problematika kontuan hartuta planteatzen da kategorizazio hau.

- Ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzorua urbanistikoki antolatu, kudeatu eta sustatzeko **"lehentasunezko intereseko"** udalerriak.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren **"hazkunde moteleko"** udalerriak.
- Aurreikuspenen arabera ekonomia-jardueretarako lurzoruaren **"garapen txikia"** izango duten udalerriak.

Jakina, edozein sailkapen egiteak, eta are gehiago sailkapen hori Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiak hiru kategoriatan bakarrik banatuz gauzatzen bada, hainbat zurruntasun-osagai eta nolabaiteko arau-arbitrariorotasuna dakartza berekin ezinbestean, gerora malgutasun eta moldagarritasuneko jarraibideak eta irizpideak hartuz konpentsatu beharko direnak, administrazio estamentu desberdinek ekonomia sustatzeko eta lurzoru urbanistikoki arautu eta antolatzeko politikak zehaztasunez aplikatu ditzaten.

Udal-kategorizazioa irizpide nagusi batekin planteatzen da: udalerri jakin bati ekonomia-jardueretarako lurzoru kudeatu eta sustatzeko esleitzen zaizkion lehentasunezko politikak, Planaren [5.4 mapan](#) jasotako espazio-mugaketaren arabera, lurraldean "lehentasunezko esparru" gisa atxikitako udalerri horren zatian aplikatzeko baino ez dira, eta ez dute inolako eraginik udalerriaren gainerako lurraldean.

Honela, kategorizazio-tresna udalerriak izateak dakarren muga gainditu egiten da. Izan ere, askoz ere ortodoxoagoa izango litzateke sailkapena aukeratutako lurzoruaren problematika sozioekonomikoa eta kokapen geografikoa bakarrik kontuan hartuz egitea, administratiboki udalerri bati zein besteari atxikita dagoen kontuan izan gabe alegia.

Udalerri bakoitzari aldi baterako ezartzen zaio kategoria bat edo beste, hori dagokion Lurraldearen Zatiko Planean behin betiko ezarri artean.

"Lehentasunezko intereseko" kategorian barne hartzen dira, egungo industria-ezarpen gehienak biltzen dituzten udalerri guztiez gain, ekonomia-garapenaren iraganbide nagusietako puntu estrategikoetan eta komunikabide eta garraiorako zentro integratuen inguruan espazio-erreserbak dituzten udalerriak, ekonomia-jarduera hiritarretarako lurzoruen egungo garapen-maila dena dela ere. Aurrerago azalduko denez, kategoria honetan barne hartutako udalerri batzuetarako, sendotu eta hobetzeko oinarritzko politika ez ezik, berariaz esku hartzeko politikak ere proposatzen dira, udalerri horien industria-arazoa edo etorkizuneko garapenerako duten ahalmenaren garrantzi berezia kontuan izanda.

"Lehentasunezko interesa" duten udalerrietarako, dagokien eskualde-egiturarako LZParen lurralde-ereduari jarraituz, jarduera ekonomikorako lurzoruen hirigintza-arloko antolamendu, kudeaketa sustapeneko politika proposatzen da.

- Okupatutako lurzoru finkatuak hobetzeko oinarritzko politika.
- Zaharkitutako industria-eremuak birmoldatzeko plan berezia, enpresak lekualdatzeko eta hutsik dauden espazioak jarduera berrietarako berreskuratzeko erraztasunak emanez.
- Industria-kalifikazioa duten okupatu gabeko lurzoruak garatzeko plan berezia, egungo poligonoak bultzatuz, desblokeatuz eta sustatuz.
- Planean interes estrategiko orokorreko hartutako guneetan jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa sortzeko politika berezia.

"Hazkunde moteleko" udalerrien kategoriaren barruan, industria-arloarekin eta hirugarren sektorearen hazkundearekin lotutako arazoak dituzten herriak biltzen dira.

- Tamaina ertaineko udalerriak, jarduera ekonomikoa duten hiri-eremuetan barne hartutakoak, lurrik eskura ez izateagatik eta ia ase egoteagatik jarduera ekonomiko intentsiboko zonak gehiago zabaltzeko prozesurako egokitza hartzen ez direnak.
- Neurri batean industrializatutako udalerriak, jarduera ekonomikoa garatzeko etorkizuneko iraganbideetatik kanpo egoteagatik hirugarren sektorearen eta industriaren hedapen handien xede ez direnak eta euren jarduera ekonomikoen barruko hazkundeak bultzatzera mugatzen direnak.
- Udalerri txiki nabarmen landatarrak edo bizitegikoak, industrietatik kanpo mantentzeko joera argia dutenak. Jadanik finkatutako ezarpenen bat izateagatik edo beste garapen koitunturalen bat barne hartu ahal izateagatik daude kategoria honetan.

"Hazkunde moteleko" udalerrientzako oinarritzko politika bat proposatzen da, jarduera ekonomikoetarako lurzoruen kudeaketari eta jadanik badauden eremuak eta ezarpenak finkatzeari dagokionez, egungo urbanizazioak akabatu eta hobetzeko ekintzen bidez. Udalerri hauen gainean ez da aurreikusten hazkundeko edo ezarpen berriko eragiketa publiko garrantzitsurik, eskualde-intereseko poligono txikiak bultzatuz lurzoruak sustatzeko estrategien ondoriozkoak salbuetsita.

Zehazki, xedapen orokor gisa proposatzen da, **"hazkunde moteleko"** udalerri guztien hiri-plangintzan, jarduera ekonomikoetarako hutsik dauden lurzoruen azalera gehienez 10 ha-koa izatea (15 ha isurialde mediterraniarrean), betiere hartzeko ahalmen nahikoa baldin badago, ingurune naturalaren gainean eragin nabarmenik sortu gabe eta horien antolamendua dagokien eskualde-egiturarako LZPan aurreikusitako lurralde-ereduarekin bat etorritz.

Azkenik, **"garapen txikikotzat"** definitutako udalerrien hirugarren kategoria bat planteatzen da. Udalerri hauetarako, euren hiri-plangintzan jarduera ekonomiko hiritarrak ezartzera zuzendutako lurzoruaren dimentsionamendua mugatzea proposatzen da Planean. Kategoria honen barruan oso mota, garrantzi demografiko eta hiri-garapen desberdinetako udalerriak biltzen direnez, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren dimentsionamendua mugatzeko irizpidea ez da kasu guztietan zorrotasun berarekin aplikatu beharko. Gutxieneko hiri-garapena duten eta landa-ingurunean bete-betean kokatuta dauden udalerri batzuentzat ez du zentzurik berariaz industrialak izango diren eraikinak edo jarduerak ezartzea. Udalerri pixka bat handiagoentzat, ordea, toki-esparruko lantegiak eta enpresa txikiak barne hartzeko egokiak izango diren eremu txikiak onartu ahal izango dira, hutsik dagoen lurzorurako 3 ha-ko gainazal hedadurako azalerarekin gehienez ere, betiere hartzeko ahalmen nahikoa baldin badago, ingurune naturalaren gainean eragin nabarmenik sortu gabe eta horien antolamendua dagokien eskualde-egiturarako LZPan aurreikusitako lurralde-ereduarekin bat etorritz. Lantegiak eta enpresa txikiak ezartzera zuzendutako poligono txiki horiek hiriguneei lotuta egon behar dute, hiriguneen hirigintza-egituraren osagarri gisa, ez ordea udal-mugapeari dagokion lurraldearen landagune isolatuetan. Eskualde-mailan ekonomia sustatzeko eragiketetan esku-hartze publikoak barne hartu ahal izateko lurzoru-garapen berriak baimenduko dira.

Nolanahi ere, jarduera ekonomikoetarako lurzoru berriak sortzeko etorkizuneko politikek, bai **"hazkunde moteleko"**, udalerrietan bai eta **"garapen txikikoetan"**, batez ere erakunde publikoetatik, eskualde-mailako estrategietara bideratu beharko dira, esku-hartzeak hiri-garrantzi handiagoa duten eskualde-buruetan biltzen saiatuz, betiere hartzeko ahalmen nahikoa baldin badago eta ingurune naturalaren gainean eragin nabarmenik sortu gabe.

Jakina, industriako eta hirugarren sektoreko kalifikazioa duten lurzoruen gainean aurreikusitako mugek ez dute eraginik izan behar nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioetan edota, dagokion hirigintza-araudiaren arabera, lurzoru urbanizaezinean ezar daitezkeen bestelakoetan. Horri dagokionez, Planaren 5.6.4 epigrafean azaldutako irizpideak hartu behar dira kontuan, instalazio-mota horiek eraikitzeo onargarritasuna arautzeko beharra azpimarratuta, EAEko lurraldearen osotasunerako homogeneotasun eta koherentziatzko irizpide orokorrei jarraituz.

Jarraian datorren erantsitako taulan, EAEko udalerri guztiei atxikitako sailkapenaren zerrenda osoa zehazten da ([ikus, halaber, 5.4 zk. mapa](#)). Jakina, aipatutako sailkapena ez da zehaztapen aldagaitza; aitzitik, denboran zeharreko ekarpen dinamikotzat hartu beharko da eta, horrenbestez, lurraldearen okupazioaren garapenaren eta sortzen diren eskari sozial eta administratiboen eboluzioaren arabera berrikusi eta aldatu.

**EAE-KO UDALERRIEN KATEGORIZAZIOA, JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN
ANTOLAMENDU ETA GARAPENARI DAGOKIONA**

ESKUALDE-EGITURA	LEHENTASUNEZKO INTERESEKO UDALERRIAK	HAZKUNDE MOTELEKO UDALERRIAK	GARAPEN TXIKIKO UDALERRIAK
ARABAKO ERDIALDEA	Aramiñon, Asparren, Beranturi, Oka-lruña, Lantaron, Legutio, Erribera Beitia, Donemiliaga, Agurain, Gasteiz	Dulantzi, Arraia-Maeztu, Arratzu-Ubarrundia, Kanpezu, Burgelu, Otxandio, Erribera Goitia, Gaubea, Zigoitia	Barrundia, Bernedo, Iruraitz-Gauna, Koartango, Lagran, Urizaharra, Gesaltza, Ubide, Urkabustaiz, Harana, Zalduondo, Zanbrana, Zuia
AIARA	Amurrio, Aiara, Laudio	Arakaldo, Artziniega, Urduña, Orozko	Okondo
ARABAKO ERRIOKA	Biasteri, Oion	Eltziego, Bastida, Lantziego	Mainueta, Bilar, Kripan, La Puebla de Labarka, Leza, Moreta, Nabaridas, Samaniego, Uriona, Ekora
ARRATIA	Bedia, Igorre, Lemoa	Artea	Arantzazu, Areatza, Dima, Zeanuri
BILBO METROPOLITARRA	Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Barakaldo, Basauri, Bilbo, Derio, Erandio, Etxebarri, Galdakao, Leioa, Lezama, Loiu, Muskiz, Urtuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Sondika, Trapaga, Ugao, Zamudio, Zaratamo, Zierbena	Berango, Getxo, Larrabetzu, Sopela, Urduliz	Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Zeberio
DURANGALDEA	Abadiño, Zornotza, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta, Izuriza	Zaldibar	Garai, Mañaria
ENKARTAZIOAK	Guenes, Zalla	Balmaseda	Arzentales, Karrantza, Galdames, Gordexola, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz
BUSTURIALDEA-ARTIBAI	Bermeo, Gernika-Lumo, Ondarroa	Ajangiz, Berriatua, Etxebarri, Markina-Xemein, Mundaka, Muxika	Amoroto, Aulesti, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Ipazter, Kortezubi, Lekeitio, Mendata, Mendexa, Morga, Munitibar, Murueta, Nabarniz, Sukarrieta
MUNGIA	Mungia		Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Laukiz, Jatabe, Meñaka
DEBAGOIENA	Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Oñati		Aramaio, Leintz-Gatzaga
DEBABARRENA	Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku, Sorluze		
DONOSTIA-BETERRI	Andoain, Astigarraga, Donostia, Hernani, Irun, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta, Usurbil	Hondarribia	
GOIERRI	Arama, Beasain, Ezkio-Itxaso, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegui, Urretxu, Zaldibia, Zumarraga	Gabiria, Segura, Zegama	Altzaga, Ataun, Gaintza, Mutiloa, Zerain
TOLOSERRI	Aduna, Alegia, Anoeta, Asteasu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Tolosa, Billabona, Zizurkil	Altzo, Amezketza, Belauntza, Lizartza	Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Larraul, Orendain, Orea
UROLA-KOSTA	Azkoitia, Azpeitia, Zarautz, Zestoa, Zumaia	Aia, Aizarnazabal, Getaria, Orio	Beizama, Errezil

5.4.2. SUSTAPEN-EREMUAK

Jarduteko lehentasunezko esparruen definizioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztiak beren lurralde-kokapenaren arabera ondoriozko kategorizatzearen zehaztapen osagarri gisa, Lurraldearen Arloko Planaren izaera koiunturaleko berariazko zehaztapen gisa ematen da industria-ehunaren birmoldaketaren edo komunikabideekiko kokapen eszentrikoaren ondorioz gainbehera ekonomikoan eta/edo demografikoan dauden zona gisa kataloga daitezkeen lurraldeko puntu urrakorretan ekintza dinamizatzailerak eta sustatzaileak programatzeko komenigarritasuna. Zona hauek jarduera ekonomiko berriak ezartzeko **"sustapen-eremu"** izendatzea proposatzen da, bai eta, Planean, aipatutako zonetan ekonomia suspertzeko politika bereziei ekitea ere, bidezko aurrekontu-zuzkidura eginda.

Illo honetan, zaharkituta geratu diren hiri-ehun industrialen birmoldaketa integrala eta hirigintza-berregituraketa planteatzen da Planaren oinarritzko proposamen gisa. Politika honek batez ere Bilbo Metropolitarran eta Pasaia badiaren eragina, eta maila kuantitatibo txikiagoan Laudio, Eibar eta Tolosako inguruetan. Itsasadarraren inguruan industria-instalazio garrantzitsuak daude (siderometalurgikoak eta kimikoak batik bat), lur-azalera handiak okupatzen dituzten arren, instalazio erabilgarrien okupazio-maila txikia dutenak. Planetik eremu hauetan esku hartzeko politika irmoa proposatzen da, lurzoru hauek leheneratzea lortzeko zuzendutako hirigintza-birmoldaketako eragileak bultzatuz. Jakina, zona hauetako asko itsasadarraren ertzetan estrategikoki kokatuta daudenez gero, biztanleria-dentsitate handia eta ekipamendu-defizit nabarmenak dituzten biztanleguneen ondoan, erabilera aldatzeko eragileak planteatzen dira sarritan. Hala eta guztiz ere, lurzoru hauetako gehienak ekonomia-jardueretarako lurzoru gisa kalifikatuta mantentzea aholkatzen da, balio handiko baliabideak baitira, eta askotan ordezkaezinak gainera, zona hauetako lanpostuak iraunaraztea ziurtatuko duten ekonomia-jarduera berriak eta hirugarren sektoreko garapenak hartzeko.

Gure lurraldeko zenbait gunetan lurzoru kutsatuak egoteak dakartzan berariazko arazoak bere gain hartuz, udal-plangintzak lurralde-eredua zehazteko estrategietan kontuan hartu beharko du lurzoruaren kalitateari buruzko aldagaia. Arazo horri aurre egin beharko dio industria-eremu zaharkituak eraberritzeko eragileak zehazteko garaian.

Halaber, esku-hartze bereziak proposatzen dira ekonomia-jardueretarako eremu berriak sortzeko bigarren sektorean lanean ari den biztanleria aktiboarekiko industria-lanpostuen defizit handiena duten eta, horren ondorioz, bertako langile asko egunero joan-etorriak egitera behartzen dituzten eskualde-egituretako eskualde-buruetan. Dinamizazio-politika hau planteatzen da Enkartzioetako eskualde-egiturarako eta Busturialdea-Artibaiko eskualde-egiturako Urdaibaiko eta Lea-Artibaiko eskualde-buruetarako.

Azkenik, hirugarren sustapen-lerro bat proposatzen da funtsean landa-izaerakoak diren eremuetako puntu estrategikoetan industria-izaerako ekonomia-jarduera berrien garapena bultzatzeko. Estrategia hau Mendikoi-k, landa-garapenerako Legearen esparruan, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailarentzat egindako "Landa-garapenerako programetan" jasotako helburuekin bat etorritik planteatzen da. Aipatutako programetan, landa-ingurune behar bezala aukeratutako gunetan industria suspertzeko esku-hartzei ekitea komeni dela adierazten da.

Laburbilduz, ekonomia-jarduera berriak ezartzeko hiru motatako edo mailatako sustapen-eragileak proposatzen dira:

- Ekonomia suspertzeko eta industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen hirigintza leheneratzeko sustapena.
- Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak dinamizatzeko sustapena.
- Landa-inguruetan industria-jarduera bultzatzeko sustapena.

Lurraldearen Arloko Planean honako **"sustapen-eremu"** hauek proposatzen dira ([ikus 5.4 zk. mapa](#)):

- a) Industria-birmoldaketa jasaten duten eremuen ekonomia suspertzeko eta hirigintza leheneratzeko "sustapen-eremuak":
 - Ezkerraldea eta Bilbo eta Erandioko udalerriak Bilbo metropolitarrako eskualde-egituran.
 - Oarsoaldea Donostia-Beterriko eskualde-egituran.
 - Laudioko zona Aiarako eskualde-egituran.
 - Tolosa-Ibarrako zona Toloserriko eskualde-egituran.
 - Eibar-Ermuako zona Debabarreneko eskualde-egituran.
- b) Industria-enpleguan defizita duten eskualde-buruak suspertzeko "sustapen-eremuak":
 - Zalla-Guenesko zona Enkartzioetako eskualde-egituran.
 - Gernikako hegoaldea (Gernika-Mujika-Ajangiz) Urdaibaiko azpieskualdean, Busturialdea-Artibaiko eskualde-egituran.
 - Markinako zona Lea-Artibaiko azpieskualdean, Busturialdea-Artibaiko eskualde-egituran.
- c) Landa-zonetan industria-jarduerarako "sustapen-eremuak":
 - Industrialdea Tuesta-Espejon (Gaubea). Arabako Haranetako azpieskualdea Arabako erdialdeko eskualde-egituran.
 - Industrialdea Subilana-Anuzitan (Erribera Goitia). Arabako Haranetako azpieskualdea Arabako erdialdeko eskualde-egituran.
 - Industrialdea Kanpezun. Arabako Mendialdeko azpieskualdea Arabako erdialdeko eskualde-egituran.
 - Industrialdea Maeztun (Arraia-Maeztu). Arabako Mendialdeko azpieskualdea Arabako erdialdeko eskualde-egituran.
 - Industrialdea Biasteriko hirigunean. Arabako Errioxako eskualde-egitura.

5.5. HIRI-PLANGINTZAREN LURZORU-BALIABIDEAK OSOTASUNEAN KUANTIFIKATZEKO JARRAIBIDEAK

Lurraldearen Arloko Planaren proposamen-eduki gisa planteatzen da EAE osoan eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzeko lurraldea antolatzekeo tresnetan ezarri beharreko jardura ekonomikoetarako lurzoruaren eskaintza osotasunean dimentsionatzea. Dimentsionatutako azalerak gauza izan beharko du Planean aurreikusitako lurzoru publikoa sortzeko eragiketa berriak hartzeko eta 16 urteko epean, Planaren denbora-horizonte gisa, aurreikus daitezkeen ekimen pribatuko sustapen guztiak ezartzeko. Planteatutako eskaintzaren behar adinako aniztasuna eta malgutasuna bermatuko duten eta lurzoru-eskari mota bakoitzerako arrazoizko soluzio alternatiboak eskainiko dituzten putze-ratioak kontuan hartuz ezarri beharko dira espazio-aurreikuspen hauek.

Lurraldea Antolatzekeo Legearen arabera, Lurraldearen Zatiko Planek, beste zenbait zehaztapenen artean, industria-lurzoru publikoa sortzeko eragiketetarako erreserbatu behar diren azalerak kuantifikatzekeo buruzkoak bildu beharko dituzte. Komenigarritzat jotzen da, halaber, Lurraldearen Zatiko Planaren proiektzio-aldian zehar eskualde-egituraren esparruan gara daitezkeen ekonomia-jardueretarako lurzoru-erreserba guztiak Lurraldearen Zatiko Plan bakoitzean aurreidimentsionatu eta kokatzea.

Beharrezkotzat jotzen da, horrenbestez, alde aurretik Lurraldearen Arloko Planean jarraibide orokor batzuk ezartzea, aurreikuspen hauen aurreidimentsionamendu sistematizatua Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde-egitura guztien artean homogeneizatuta, koordinatuta eta erlazionatuta ebaluatu ahal izateke. Eginkizun hori, LAParen denbora-horizonte gisa, 16 urteko aldirako da, hori baita Lurraldearen Zatiko Planetarako aurreikusitako proiektzioaldia.

Eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzean ekonomia-jardueretara zuzendutako lurzoru librearen dimentsionamendu osoa kalkulatzeko, jarraian adierazitako oinarizko batugaiak hartu dira aintzat:

- A. Gaur egun ekonomia-jardueretarako instalazioek okupatutako lurzoruaren azalera osoa. Puntu honetan, gaur egun kalifikatuta eta okupatuta dauden azalera guztiak zenbatzen dira, dituzten ezaugarri bereziak kontuan hartu gabe. Izan ere, positiboki baloratzen da lurzoru hauek jardura ekonomikora zuzendutako espazio gisa gordetzea, bai eta, hirigintza-birmoldaketaren kasuetan, erabilera ekonomiko berriak ezartzen saiatzea edota, erabilera-aldaketaren kasuan, jardura ekonomikoetara zuzendutako azalera berrien birkalifikazio osagarria egitea ere.
- B. Hiri-plangintzan dagoeneko ekonomia-jardueretarako lurzoru gisa kalifikatuta eta oraindik okupatu gabe dauden lurzoruei dagokien azalera. Lurzoru horiek eskaintza operatibotzat eta, hortaz, erreserba zenbakarritzat hartu ahal izateke, bakoitzari minorazio-indize bat esleitzen zaio, eskualde-egituretan eta azpieskualdeetan dauden lurzoru libreen benetako bideragarritasun- eta erabilgarritasun-maila kontuan hartuta. Minorazio-indizeak kasu bakoitzaren suerta daitezkeen gorabeheren arabera (zailtasun orografikoak eta/edo geoteknikoak, ingurumenaren gaineko eragina, ubideak eta/edo azpiegiturak egotea, eraikinak egotea, kudeaketa-zailtasunak, jendearen aurkako iritzia, lurren kostu handia, gehiegizko hirigintza-kargak, kutsatutako lurrak egotea eta abar) esleitzen dira. Gorabehera horiek plangintzaren aurreikuspenen portzentaje bat benetan lurzoru-eskaintza operatiboa ez izatea dakarte. Arazo hori lurzoru-eskasia handiena duten eskualde-

egituretan nabarmentzen da gehiago. Gainera, esan beharra dago Plana idazteko erabilitako lurzoruen inbentarioetan, zenbait kasutan, hasiera onarpenetik plangintza berrikusteko dokumentuak jaso direla. Horren ondorioz, baliteke azken dimentsionamendua zehatz-mehatz bat ez etortzea aipatutako aurreikuspenarekin, jendaurrean jartzean sortutako aldaketa posibleak edota, behin betiko onarpenean, udalaz gaindiko administrazioen esku-hartzeen ondoriozkoak ez baitira jasotzen. Gorabehera horiek jasotzeko, eskualde-egitura bakoitzean guztira dagoen eskaintzaren gainean batez besteko zuzenketa-modulu batzuk esleitzen dira (1, 0,75 eta 0,5, kasu zehatz bakoitzaren arabera).

- C. Planean aurreikusitako sustapen publikoko eragiketa berrien harrera xurgatzeko beharrezkoak diren lurzoruei dagokien azalera; lurzoru hauek indarrean dagoen hiri-plangintzan aintzat hartzen ez direnez gero, birkalifikatu egin behar dira. Lurzoru hauen erreserba-aurreikuspenari nahiko puzte-indizea txikia esleitzen zaio, alternatiba hauek kokatzeko aleatoriotasun-maila txikiagatik eta desjabetze-sistemaren bitartez esku hartzeko aukeragatik.

Beraz, batugai honetan, lurzoru publikoa sortzeko LAPen proposatutako eragiketak, lurzoru berria birkalifikatzea behar dutenak, besterik ez dira zenbatzen. Izan ere, garatzen ari direnak, edota gutxienez hirigintza-onarpena badutenak, aurreko puntuetan daude zenbatuta.

- D. Eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzean Planaren proiektzio-aldirako zenbatetsitako ekonomia-jardueretarako lurzoruaren etorkizuneko eskaria xurgatzeko aurreikus daitezkeen izaera partikular edo lokaleko eta udal-ekimeneko edo ekimen pribatuko gainerako eragiketak hartzeko beharrezkoak diren lurzoru berriei dagokien azalera, edota bestelako eskaera koiuntural zehatzak, kanpokoak eta/edo estrategikoak, EAEko gune zehatz batzuetan kontuan har daitezkeenak. Epigrafe honetan, era berean, eskakizun edo estrategia berriei erantzuteko etorkizunean planteatu beharreko lurzoru publikoa sortzeko eragiketa berrietarako litzekkeen erreserbak barne hartzen dira. Eskari-mota hau betetzeko beharrezkoak diren erreserba guztiak kalkulatzeko, lurzoru-premien aurreikuspenari 2ko puzte-ratioa esleitzen zaio.

EAEko eskualde-egitura eta eskualde bakoitzean etorkizunean izango den lurzoru-eskari orokor honen proiektiorako, eskualde-egitura bakoitzerako faktore edo aldagai zehatz batzuk kontuan hartu dira:

- Eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzak gaur egun duen hasierako abiapuntua (biztanleria aktiboarekiko industria-lurzoruaren defizita edo superabita), ahal izanez gero orekatzea nahi izango litzatekeena.
- Eskualde-egitura edo azpieskualde bakoitzeko lurraldeak dituen benetako espazio-erabilgarritasunak.
- Eskari endogenoaren eta exogenoaren aurreikuspenak, eskualde-egitura bakoitzerako azken 1990-2002 aldian izandako lurzoru okupatuaren hazkundera estrapolatzearen ondoriozkoak (ikus 3.2.1.etik 3.2.15.era bitarteko epigrafeak).
- Izaera puntual eta bereziko erreserba handien berariazko kasuak (esate baterako Lantaron ingurua, Kanpoko Portua, Boroa ingurua, Asparrena-Donemiliaga ingurua eta abar.).
- Lurraldearen Arloko Planak eskualde-egitura jakin batzuetan Euskal Autonomia Erkidego osorako eskala estrategiko orokorreko lurzoru publikoa sortzeko eragiketetarako egiten dituen aurreikuspen bereziak (Bilbo metropolitarrako, Arabako erdialdeko eta Donostialdeko jarduera

logistikoen zonak, modalitate arteko plataformak, garraioaren zerbitzurako eremu handiak, eta abar).

- Industria-birmoldaketa jasaten duten eremuak, demografia-gainbeheran dauden eskualde-buruak edo landa-inguruetako enklabe estrategikoak sustatzeko esku-hartzei buruzko Lurraldearen Arloko Planaren aurreikuspenak.

Aldagai hauek guztiak konbinatuta aintzat hartuz, EAE osorako jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren dimentsionamendu orokorrari buruzko laburpen-taula bat egin da. Eskualde-egitura eta azpieskualde bakoitzean, Planaren 16 urteko proiektioaldian aurreikustea komeniko den lurzoru kalifikatuaren erreserbei buruzko proposamen kuantitatiboa barne hartzen du. Aipatutako dimentsionamenduak egun jadanik okupatuta dauden jarduera ekonomikoetarako lurzoruak, libre egonda eskaintza bideragarria duten lurzoru kalifikatuak, proposatutako eragiketa publikoetarako beharrezko birkalifikazio berriak eta aurreikus daitezkeen eskariak xurgatzeko beharrezkoak diren etorkizuneko birkalifikazioak kontuan hartzen ditu. Azken batugaien kuantifikazioan, eskaria aniztu ahal izateko puzte-koefiziente batzuk jasotzen dira.

Era berean, dimentsionamendu honen barruan, gaur egun dauden saltoki handiekin okupatutako lurzoruak eta, hala badagokio, etorkizunean saltoki berriak ezartzeko azalera libreak zenbatzen dira.

Lurraldearen Zatiko Planen eta, horren orde, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eginkizuna izango da dimentsionamendu-jarraibide horiek lekualdatzea, banan-banan, eskualde-egitura edo azpieskualde-egitura bakoitza osatzen duten udalerrien plangintza orokorretara, eskualde-egitura bakoitzean eta dagokion lurralde-esparruan 16 urteko aldirako aurreikusitako espazio-erreserben bolumen osoa denboran eta espazioan orekaz banatuz.

Hala, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren guztizko dimentsionamendua 1u urteko aldirako kontuan hartuta, esan daiteke 8 urterako ezarri beharreko dimentsionamendua, udal-planen indarraldi gisa, guztizkoaren hiru laurdenekoa izango dela.

Dimentsionamendu-jarraibideak, banan-banan, eskualde-egitura edo azpieskualde-egitura bakoitza osatzen duten udalerrien plangintza orokorretan esleitzeko, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak banaketa proportzionala egiteko oinarrizko irizpidea aplikatuko du, udalerri bakoitzak eskualde-egitura osoarekiko duen lurralde-eskuragarritasunaren, garrantzi demografikoaren edo enplegu-kopuruaren arabera.

LURRALDEAREN ARLOKO PLANA EKONOMIA-JARDUERETARAKO LURZORUAREN KUANTIFIKAZIOA
AZALERAK HEKTAREATAN

ESKUALDE-EGITURAK ETA AZPIESKUALDEAK	EGUNGO EGOERA JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN INBENTARIOA 2002N EGUNERATUA				PLANEAN PLANTEATUTAKO SUSTAPEN PUBLIKOKO ERAGIKETAK GARATZEKO BEHARREZKO KALIFIKAZIO BERRIAK	PLANAREN HORIZONTEAN (16 URTE) AURREIKUSI BEHARREKO LURZORU KALIFIKATUKO BESTE ERRESERBA BATZUK	LURZORU KALIFIKATURAKO DIMENSIONAMENDU- PROPOSAMENA PLANAREN HORIZONTEAN (16 URTE) (A+B+C+D)
	LURZORU KALIFIKATUA GUZTIRA	LURZORU OKUPATUA (A)	LURZORU OKUPATU GABEA *	ESKAINITZA BIDERAGARRI GISA HAR DAITEKEEN LURZORU LIBREA (B)			
ARABAKO ERDIALDEA	3.689	2.164	1.525	1.525	200/300	360/720	4.300/4.650
- ARABAKO LAUTADA	427	254	173 (1,00)	173	-	100/200	530/610
- GASTEIZKO AZPIESKUALDEA	2.585	1.449	1.136 (1,00)	1.136	-	100/200	2.700/2.780
- GORBEIA INGURUAK	326	255	71 (1,00)	71	-	50/100	380/420
- ARABAKO HARANAK	283	185	98 (1,00)	98	200/300	100/200	600/750
- ARABAKO MENDIALDEA	68	21	47 (1,00)	47	-	10/20	80/90
AIARA	433	321	112 (0,75)	85	40/60	40/80	490/540
ARABAKO ERRIOXA	299	171	128 (0,50)	65	25/50	65/130	350/400
ARRATIA	165	105	50 (0,75)	40	-	20/40	165/185
BILBO METROPOLITARRA	2.966	2.154	812	600	200/350	175/350	3.200/3.400
- KANPOKO PORTUA	402	121	281 (1,00)	280	-	-	400
- ITSASADARRA ETA EZKERRALDEA	1.239	938	301 (0,50)	160	125/200	50/100	1.270/1.400
- BILBO	102	89	13 (0,75)	10	-	25/50	130/145
- LEIOA-PLENTZIA IRAGANBIDEA	241	158	83 (0,75)	60	25/50	50/100	300/360
- TXORIERRI	460	369	91 (0,75)	70	25/50	25/50	470/520
- NERBIOI BEHEREA	522	479	43 (0,50)	20	25/50	25/50	550/600
DURANGALDEA	757	510	247 (0,75)	185	100/150	100/200	900/1.000
ENKARTAZIOAK	164	85	79 (0,75)	60	25/50	25/50	200/250
BUSTURAILDEA-ARTIBAI	261	190	72	35	50/75	35/70	320/360
- URDAIBAI	157	117	40 (0,50)	20	40/60	25/50	210/240
- LEA-ARTIBAI	104	73	32 (0,50)	15	10/15	10/20	110/120
MUNGIA	155	102	53 (0,50)	30	20/30	20/40	170/200
DEBAGOIENA	578	404	174 (0,75)	100	40/60	75/125	660/730
DEBABARRENA	384	282	102 (0,50)	50	10/15	35/70	375/410
DONOSTIA-BETERRI	1.424	1.008	416	315	100/175	150/300	1.600/1.730
- BIDASOA BEHEREA	322	204	118 (0,75)	90	25/50	40/80	370/420
- OARSOALDEA	375	267	108 (0,75)	80	50/75	40/80	420/490
- DONOSTIA	269	177	92 (0,75)	70	10/15	40/80	300/330
- DONOSTIALDEKO H-M	458	360	98 (0,75)	75	25/50	40/80	510/550
GOIERRI	532	384	148	75	35/50	40/80	540/590
- ORIA GARAIA	369	269	100 (0,50)	50	25/40	30/60	375/415
- UROLA GARAIA	163	115	48 (0,50)	25	10/15	10/20	160/175
TOLOSERRI	300	189	111 (0,50)	55	30/45	35/70	310/350
UROLA-KOSTA	482	324	158 (0,75)	120	30/45	25/50	500/540

* Lurzoru libre osoaren gaineko minorazio-koefizientea, eskaintza bideragarritzat har daitekeen lurzoru librea zenbatesteko aplikatutakoa.

5.6. JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUA HIRIGINTZA-ARLOAN ARAUTZEKO JARRAIBIDEAK

5.6.1. ANIZTASUN TIPOLOGIKOA

"Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren" kalifikazio orokorrak erabilera-sorta zabala barne hartzen du, bigarren sektorearen berezko jarduera berariaz industrial edo produktiboetatik hasita, garatu ahal izateko lurzoru urbanizatua okupatzea beharrezkoa duten hainbat motatako merkataritza-jardueretara edo hirugarren sektorekoetara iritsi arte.

Jakina, erabileren eta jardueren aniztasun hori jaso egin behar da aipatutako jarduerak garatzen direneko hirigintza-eremuek, eraikinek eta instalazioek dituzten konfigurazio tipologikoen eta espazialen aniztasunean.

Nolanahi ere, Lurraldearen Arloko Planaren helburua ez da tipologia arautzeko jarraibide sistematizatua eta zehatza ezartzea jarduera ekonomiko orokorraren eskakizun-aniztasunak sorrarazten dituen lurzoruaren okupazio-tipologia guztien gainean. Hirigintza-garapena zehatzago arautzeko zeregina zatiko lurralde-antolamenduaren eta udal-mailako hiri-plangintzaren esku uztea hobe da.

Hala eta guztiz, 5.6.3. epigrafean, jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren oinarritzko ezaugarritze kualitatiboan Lurraldearen Zatik Planak egindako ekarpen gisa, funtsezko parametro batzuk (esaterako, jarduera ekonomikoetarako etorkizunean programatzen diren lurzoru-sektore berrien gehieneko eraikuntza-ahalmena eta gutxieneko zuzkidura-ekipamendua) hirigintza-arloan arautzeko ratio orokor batzuk proposatzen dira.

5.6.2. PLANGINTZA BERRIKUSTEKO ETA/EDO ALDATZEKO PROZESUAK

Udal-plangintza orokorra aldatzeko prozesuak arautzeko estrategia sistematizatua aukeratzeko komenigarritasuna planteatzen da, bai indarrean dagoen plangintzaren berrikuspen osoaren bidez bai aldaketa puntualaren bitartez egiten direnean, baldin eta proposatutako aldaketek "industria-kalifikazioa", "ekonomia-jardueretarakoa" edo beste edozein adiera baliokide duten lurzoruaren eragina badute.

Hala udal-plangintza orokorra berrikusteko prozesuetarako nola aldaketa puntualak egiteko espedienteetarako, dagokion Lurraldearen Zatik Planak bestelakorik xedatu ezean, "industria-kalifikazioa", "ekonomia-jardueretarakoa" edo beste edozein adiera baliokide duten lurzoruaren hirigintza-arautzeari dagokionez honako alderdi hauek betetzea proposatzen da:

- Gaur egun "industriarako" edo "jarduera ekonomikoetarako" kalifikatutako lurzoruak "bizitegirako" edo antzeko erabilerarako birkalifikatzeko prozesuak onartzea soilik aldez aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean ezintasun teknikoa, ekonomikoa edo hirigintza-arlokoa dagoela hautabidezko hirigintza-eragiketa bat planteatzeko, lurzoru horiek jarduera ekonomiko berriak hartzeko eremu gisa birmoldatzeko, dagokion aparkaleku-zuzkidurarekin hornituta. Jakina, jarduera ekonomiko berrien konfigurazio tipologikoak bateragarria izan beharko du hiri-ehunaren barruan

izango duten kokapen zehatzarekin (jarduera aurreratuak, hirugarren sektoreko zerbitzuak eta abar).

- "Industria-lurzuaren" edo "ekonomia-jardueretarako lurzuaren" hirigintza-kalifikazioa aldatu eta "bizitegi-lurzu" edo "zuzkidura-lurzu" gisa kalifikatzeko prozesu berriak tramitatzeke, betiere, aldi berean udalerrian edo eskualde-egituran hiri-plangintzari "ekonomia-jardueretarako" lurzu berriaren azalera baliokidea gehitzeko eskatzea.
- Azkenik, Lurraldearen Arloko Plan honek "ekonomia-jardueretarako" kalifikazioa duten lurzuak beste erabilera alternatibo batzuetarako birkalifikatzea aholkatzen ez dueneko lurzu-eskuragarritasun txikiagoa duten Kantauriar erlaitzeko eskualde-egituretan (bereziki Debabarrenean, Debagoienean, Urola-Kostan eta Toloserrin) jarduera ekonomikoaren euskarri den lurzu urria iraunarazteko asmoz, industria-eremu zaharkituak birmoldatzeko burutzen diren prozesuak lehentasunez ekonomia-jardueretarako eta zuzkidura edo bizitegi gisako eraikuntzarako eragiketa mistoetarantz bideratzea.

5.6.3. ARAUDI-SISTEMATIZAZIOA

Ez da erraza Lurraldearen Zatiko Plan batean sistematizatutako jarraibide orokor batzuk ezartzea jarduera ekonomikora zuzendutako lurzuak lurralde-arloan arautzeko. Izan ere, EAE barruan lurzuaren aniztasun tipologikoa oso zabala da eta egoera geografikoak erabat desberdinak dira, baliabide espazialen eskuragarritasunari eta, ondorioz, horien erabilpenari dagokionez. Esaterako, Kantauriar erlaitzean eta Arabako Lautadan arazoak guztiz bestelakoak dira.

Nolanahi ere, jarduera ekonomikoetarako lurzuaren zuzkidura-erreserben eta eraikuntza-aprobetxamenduaren gainean parametro orokor eta operatibo batzuk ezartzen laguntzeko asmoz, gehieneko eta gutxieneko ratio orokor batzuk finkatzea proposatzen da. Ratio horiek lortutako plataforma garbiaren azaleraren oinarritzko adierazleari buruzkoak dira eta, horrenbestez, EAEren lurralde osoan oro har erabilgarritzat har daitezke, eskualde-egitura bakoitzak lurralde-antolamenduaren inguruan dituen arazo zehatzak kontuan hartu gabe.

Parametro horiek erabiltzeak, zehazki, egungo plangintza-araudiaren eskakizun batzuk gainditzeko bidea emango du, bertan jasotako zehaztapenak ez baitira oso egokiak, batez ere, Kantauriar erlaitzean aplikatzeko, bertako konfigurazio geografiko zaila dela eta.

Horrenbestez, Lurraldearen Arloko Planaren proposamen-eduki gisa, jarduera ekonomikoetarako lurzu urbanizagarriko lurzu-sektore berriak garatzeko nahitaez bete beharreko ratio orokor batzuk finkatzea planteatzen da. Gehieneko sektore berrien eraikuntza-ahalmena eta gutxieneko zuzkidura-ekipamenduak arautzeko parametroak plataforma erabilgarrien emaitzazko azalera garbiaren oinarritzko adierazleari lotuta planteatzen dira, lur-mugimenduak egin ondoren (eta, ondorioz, lur-erazketen eta lubeten azalera kenduta), eta ez, orain arte bezala, sektorearen guztizko azalera gordina kontuan izanda.

Beraz, ondoko parametroak planteatzen dira:

- Sektore baten gehieneko eraikuntza-aprobetxamendua: %65eko oinplanoko gehienezko okupazio-azalera eta %95eko gehienezko sabai-azalera

eraikigarria, sektorearen zatiko plangintzan lursail eraikigarri, bide-sareko elementu edo zuzkidura-zona gisa konfiguratutako sektoreko plataforma erabilgarri nabarmen horizontalen multzoaren azalera garbia erreferentziazat hartuta.

- Sektore baten interes publiko eta sozialeko zerbitzuetarako eraikuntzaren gutxieneko zuzkidura: gutxienez sabai-azalera eraikigarriaren %3 enpresen zerbitzurako zuzkidura-ekipamendurako erabiliko da (bulegoak, ostalaritza, enpresa laguntzaileak, zerbitzu komunak eta abar); titulartasun publiko zein pribatukoa izan daiteke.
- Sektore baten gutxieneko aparkaleku-zuzkidura: aparkaleku-plaza bat eraikitako 100 m² sabaiko; gutxienez plazen %20 sarbide publikoko bide-sarean ezarriko dira.
- Gutxienez sektorearen azalera gordin osoaren %15 erreserbatzea espazio libreen eta ekipamenduen toki-zuzkidura publikoetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Hirigintza Lege berriaren Aurreproiektuan xedatutakoarekin bat etorritik.

Jakina, arautze-proposamen honetan sektore bakoitzerako eraikuntza-ahalmenerako gehieneko estandar batzuk eta zuzkidura-ekipamendurako gutxieneko batzuk planteatzeak ez du esan nahi kasu askotan estandar horiek, hurrenez hurren, beherantz eta gorantz doitu behar ez direnik, hainbat faktore kontuan izanda, esaterako ondoko hauek:

- Sektore bakoitzean garatu beharreko erabilerak eta jarduerak. Adibidez, hirugarren sektoreko poligono batek aparkaleku-zuzkidura handiagoa eskatu ahal izango du.
- Sektore bakoitzari esleitzen zaion konfigurazio tipologikoa eta hirigintzakoa. Adibidez, teknologi elkartegietara zuzendutako poligonoetan edo garraiorako zerbitzu-zentroetan, argi eta garbi eraikuntza-okupazioko ratio txikiagoa behar da, noski.
- Hiri-bilbearen barruan poligono batek duen hirigintza-kokapena. Adibidez, hiri-garraio publikoaren sarearekin zuzenean lotuta dagoen sektore batek hiriaren kanpoaldean kokatutako poligono batek baino aparkaleku-zuzkidura txikiagoa behar du funtzionatzeko.
- Berariazko eragiketa bakoitzaren lurralde-kokapena. Adibidez, Arabako Lautadan kokatutako poligonoetan ez dute zentzurik eraikuntza-okupazioko halako indize handiek, lurzoru-eskuragarritasun txikia duten Kantauriar ertzaizko eskualde-egitura jakin batzuetan kokatutako poligonoetan ez bezala.

Nolanahi ere, hirigintza-arautzearen doikuntza zehatz horiek, zalantzarik gabe beharrezkoak, gai horri buruzko berariazko azterlan batean jaso eta dagokion araudiaren bidez garatu beharko dira.

5.6.4. LEHEN SEKTOREARI LOTUTAKO INDUSTRIA-JARDUERAK

Indarrean dagoen hiri-plangintza orokorrean landa-inguruan asistematikoki eta irregularki sakabanatuta dauden industria-instalazioei dagokien lurzoruaren sailkapen eta kalifikazioari buruzko irizpideek homogeneousotasunik ez dutela egiazta daiteke. Beste

horrenbeste gertatzen da sarritan landa-lurzoruan kokatzen diren beste instalazio batzuekin, lehen sektoreko berariazko ekonomia-jardueri dagozkien arren, beren bilakaera teknologikoa edo produkzio-dimentsioa dela medio, industria-jardueratzat har daitezkeenekin hain zuzen.

Lehenengoak, gehienetan argi eta garbi industrializat jo daitezkeen jardueri dagozkienak, oso irizpide desberdinekin islatzen dira udal-plangintzako tresnetan. Horrela, zenbaitetan ez dira aintzat hartzen, eta ezarrita dauden eremuaren kalifikazio orokorra aldatzen ez duten eremutzat jotzen dira. Beste zenbaitetan antolamenduz kanpokotzat kalifikatzen dira. Beste batzuetan, uneko egoeraren hirigintza-arautze hutsa egiten da, hiri-lurzoruko industria-eremu isolatu bat bere uneko dimentsioetara mugatuz. Azkenik, bada laugarren tratamendu bat, instalazio hauen presentzia finkatzean datzana; kasu hauetan, gainera, lurzoru urbanizagarriko sektore bat konfiguratzeko da aldameneari, instalazioak handitu edo ezarpen berriak barne hartu behar diren kasu hipotetikorako. Kasuistika orokor honetan, halaber, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen araudia aplikatuz isolatuta kokatu behar diren industria-jarduerak barne har daitezke.

Bigarren multzoa kokatuta dauden landa-inguruari jatorriz zuzenean loturik dauden jardueri (landetxe intentsiboak, nekazaritzako elikagaien instalazioak, upeltegiak, meatze-ustiapenak, harrobiak, legar-hobiak, zerrategiak) eta funtzionalki nekez koka daitezkeen beste jarduera marjinal batzuei (txatartegiak, zabortegiak eta hondakindegia, materialak eta makineria gordetzeko parkeak, automobil-hondakindegia) dagokie.

Udal-plangintza desberdinen artean lurzoruen sailkapen heterogeneoak eta kontraesanezkoak sortzen dituzten ekonomia-jarduera eta erabileren azterketa honen ondorio gisa, irizpide orokor komunetan oinarritutako gutxieneko homogeneizazio-jarraibideak finkatzeko eta berariazko udal-araudirik ez dagoenean baino erabiliko ez den oinarritzko araudi subsidiario bat ezartzeko premia adierazten da.

Hirigintza-administrazio eskudunak generikoki landu behar lukeen oinarritzko araudi hau eskualde-egitura bakoitzaren hirigintza-zirkunstantziei buruzko berariazko gaiekin osa liteke dagokion Lurraldearen Zatiko Planean.

Landa-inguruan ezarritako jarduera hauetarako hirigintza-politika koordinatu eta orientatuko duen legezko esparru bat sortzeko premian datza adierazitako araudia idaztearen komenigarritasuna, udalerrir mugakideen artean tratamendu desberdinak, eta are kontraesanezkoak ere, izan ez daitezken.

Baliabide naturalak babestea, baimendutako jardueren hazkundera kontrolatzea eta Lurzoruen Legearen interpretazio-anbiguotasunak ezabatzea izango lirateke oinarritzko araudi subsidiario horren helburuak, eta erreferentzia-esparru komuna sortuko luke horretarako. Haren idazkuntza gidatu behar lukeen oinarritzko irizpidea, berriz, ingurumena babesteko premiak eta lurraldearen arrazoizko ustiapena bultzatzeko premiak uztartzea izango litzateke.

Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan (22. kapitulu eta 8. kapitulu, 5.3.Bb3 atala) ezarritakoaren arabera, udal-plangintzak erauzpen-jardueren ondorioz eragindako zonen mugaketa barne hartu beharko du.

5.7. JARDUERA BEREZIETARAKO LURZORUA SORTZEA

5.7.1. GARRAIOAREN ETA SALGAI-BANAKETAREN SEKTOREAREN LURZORU-PREMIAK

Salgaien garraio eta banaketaren sektorea garrantzi handiko ekonomia-jarduera da Euskal Autonomia Erkidegoan. Zuzeneko errenta garrantzitsuak sortzen ditu erkidegoarentzat eta, zeharka, zerga-baliabide esanguratsuak ematen dizkio administrazioari.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kokapen geografikoari esker, Europako komunikabide-sarearen barruan nahitaezko igarobidea denez gero, enklabe estrategikoa da garraioarekin zerikusia duten jarduerak ezartzeko.

Gure erkidegoaren espazio-mugak, batez ere Kantauriar erlaitzean, eta garraibideen bolumenak izan duen igoera ikaragarria direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko garraio-enpresa askoren egungo kokapenak arazo ugari ditu: ezarpen-baldintza eskasak, soluzio koiuntural sakabanatukoak, behar adinako dimentsionamenduak ez dituztenak eta hiriguneen barnealdean interferentzia-arazoak dituztenak.

Erronka planteatuta dago: ezarri eta garatzeko espazio-esparru berriak eman behar zaizkio garraioaren sektoreari. Honek sektorearen finkapena eta etorkizuneko hedapena ekarriko du, baita egungo instalazioen birmoldaketari esker libratuko diren hiri-ehunen birkalifikazioa eta ingurumen-hobekuntza ere.

Litekeena da egia ez izatea Euskal Autonomia Erkidegoan mota honetako instalazioetarako lekurik ez dagoela esatea. Hori hainbat faktore uztartzearen mende egongo da, hala nola, sektorea suspertzeko enpresen joera, lurzorua prezioa, ingurumenaren gaineko eragina eta urbanizazio-kostuak. Eta behar adinako dimentsio kritikoa duen eragiketa baten esparruan zentzuz arautzen badira, soluzio gogobetegarriak ahalbidetzeko moduan konbina daitezke. Jakina, horretarako ezinbestekoa izango da lurzorua antolamenduaren interes municipalisten eta/edo partikularren logika gaindituko duten eragiketa handiei ekiteko premia eta komenigarritasunean oinarritutako borondate eta adostasun politikoa erdiestea eta, ondorioz, herri-administrazioak sustapen-neurriak hartzea.

Garraioaren sektorea ekonomia-jarduera eragile gisa konfigura daiteke Euskal Autonomia Erkidegoan baldin eta, bere logistikako problematika espezifikoa konpontzeaz gain, biltegiartzeko eta izakinak gordetzeko ahalmena eskaintzeko gai bada eta salgaien banaketari lotutako produktuak muntatzeko kanaletan merkatu berriak erakartzera bideratzen bada.

Bilbo eta Pasaiaiko portuen presentziak, trenbide-sare berriaren eraikuntzarekin eta Europako autobideen sare orokorrarekiko kokapen estrategikoarekin batera, garraioaren sektorearen zerbitzurako plataforma logistikoen erabilgarritasuna eskatuko du. Plataforma estrategiko hauek Araban ez ezik, non espazio-erabilgarritasunak haien garapena bermatzen baitu, Bilbo metropolitarrako, Donostia-Beterriko eta Durangaldeko eskualde-egitura estrategikoetan ere sortu beharko dira.

Eskualde-egitura hauetan, azalera berri hauen bideragarritasuna optimizatzeko, garraioaren sektoreko enpresen oinarri operatibo gisa, lehentasunez sektoreko enpresa-mota desberdinak integratuko dituzten soluzioak diseinatu beharko dira (ibilbide luzeko nazioarteko garraioa, karga osoko estatuko garraioa, kargen taldekatze eta haustura, tokiko banaketa, biltegiartzea eta izakinak gordetzea, zerbitzuak eta hornidurak, eta

abar), lurzoru urbanizatuko plataformen errendimendua optimizatzeko eta zerbitzu komun osagarrien kostuak minimizatzeko helburu bikoitzarekin.

Soluzio integratu hauek are eta saihestezinagoak suertatuko dira Kantauriar erlaitzean. Izan ere, lurralde-esparru horretan lurzoru lau urriaren, honen prezio garestiaren eta urbanizazio-lanen kostu handien ondorioz, lurzoru-baliabidearen erabilera zorrozki optimizatzea aintzat hartzen ez duen soluzio orok hasiera-hasieratik bideraezin bihurtzen du edozein eragiketaren errentagarritasuna eta, hortaz, ezinezkoa da kanpoko eskaintzeekin lehiatzea.

Eskuarki azalera handiak behar izaten dituzten hainbat garraio-enpresa bateratzen dituzten eragiketak planteatu ahal izateko, behar-beharrezkoa da sestra bakarreko plataforma urbanizatuarekin gutxieneko dimentsionamendu-atalsea lortzea, eta arazo honek ezinbestean ekarriko ditu inguru fisikoaren gaineko eraginak, ingurumen-arloko zuzenketa-neurri egokiak hartuz konpondu beharko direnak.

Lurraldearen Arloko Planaren 5.2. epigrafean planteatutako proposamenetan ondorengo esku-hartze motak aintzat hartzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen puntu estrategikoetan:

- **A Plataforma logistikoak eta modalitate artekoak.**

Komunikabideen sare orokorreko modalitate arteko gune nagusietan garraioaren zerbitzurako azalera handiak, hirugarren sektoreko ekipamenduaz hornituta.

- **Salgaien garraio eta banaketako jardueretarako poligonoak.**

Garraioaren sektoreari lotzen zaizkion jarduera-eremuak, biltegitratzeko, izakinak gordetzeko eta kargak hausteko esparruak, salgaiak banatzeko guneak eta abar.

- **Garraiorako zerbitzu-zentroak.**

Errepidean zeharreko garraioaren sektoreari zerbitzu egingo dieten berariazko instalazioak jasotzeko espezializatuta dauden espazio txikiagoko eremuak.

Plan hau bideratzeko prozesuan, Garraioaren Sare Logistikoa eta Modalitate artekoa Antolatze Lurraldearen Arloko Planaren Aurrerapena landu du Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak. Jakina, Plan honetan jasotako edukiak eta proposamenak aipatutako LAParen ondorioz xedapenekin eta zehaztapenekin koordinatu eta osatu beharko dira.

5.7.2. TOKI-HARMEN TXIKIKO JARDUERAK BARNE HARTZEKO LURZORU-PREMIAK

Euren ezaugarriengatik "toki-harmen txikikotzat" har daitezkeen jarduera ekonomikoak ezartzeko soluzioak eskaintzeko premia garrantzi handiko arazoa da.

Adiera orokor horren barruan, inguruko ingurumen-kalitatearen gainean sor dezaketen eragina eta dagokion zonaren hirigintza-kualifikazioan izan dezaketen ondorio narriatzaileak argudiatuz, toki-administrazioek eta auzo-erakundeek ziur aski ezartzea onartuko ez duten industriako edo oinarrizko zerbitzuetako instalazioei dagozkien jardueren multzoa biltzen da. Nolanahi ere, ikuspegiri orokor batetik, aipatutako jarduerak lurraldeko gune egokietan baina garapeneko hiriguneetatik urundu gabe kokatzea guztien intereserako da zalantzarik gabe. Beraz, arazo hori lurralde-antolamendua eta jarduera ekonomiko orokorra arautzen dituzten herri-administrazioiko erakundeek ebatzi beharko dute.

Aipatutako instalazioen kokapena kasuak kasu berariazko plangintza bati jarraituz erabaki behar denez, Plan honi ez dagokio jarduera horietako bakoitzaren kokaleku zehatza aurreikustea. Indarrean dagoen legeriak, bestalde, Lurraldearen Zatiko Planen esku uzten du gai hori, kasuak kasu kokaleku egokiak aukeratzeko jarraibide orokorrik eman gabe.

Irizpide orokor gisa, dagozkion instantzia teknikoen eta interes orokorraren ikuspegitik kokaleku egokienak aukeratu ondoren, instalazio horien harrera kasu bakoitzean Administrazioak zenbait konpentsazio-neurri erabakitzeari lotzea iradokitzen da, lurralde-antolamenduko ekintza osagarriak hartzeari eta ekonomia suspertzeko aldi bereko programak eskaintzeari dagokionez.

Lurralde-kompentsazioko estrategia horrek "gizarte-estimazio txikikotzat" hartutako jarduera horiek lurraldean kokatzeko prozesua gidatu behar du. Aipatutako jardueren barruan, besteak beste, ondoko instalazio hauei dagozkienak aipa daitezke: hiri-hondakin zabortegiak eta zaborrak tratatzeko plantak, inerteen zabortegiak eta hondakin kutsatuak tratatzeko plantak, industria-hondakinak birziklatzeko instalazioak, sektore kimikoko enpresak, energia sortzeko zentralak, elikagaien enpresak, planta siderurgikoak eta abar.

Jakina, jarduera horiek barne hartzeko kokapen berriak bideragarri egiteko estrategiekin batera, instalazio-mota horietarako indarrean dagoen legeriak xedatutakoaren arabera eraginak zuzentzea eta arriskuei aurrea hartzea ziurtatuko duten neurri osagarriak hartu beharko dira.

Era berean, sustapen-politikak osatzeko, eskumena duen administrazioak, toki-mailako erakundeetatik eta gehiegizko prebentzio-arduran oinarrituta, lurraldeko kokaleku egokietan jarduera horiek ezartzeko bidezko ekimenekiko litezkeen disuasio-jarrerak bideratu beharko ditu.

Zehazki, zabortegi berezien eta hondakin kutsatuak tratatzeko planten sare bat izateak erraztu egingo lituzke EAEn dauden industria-aurri kutsatu ugariak hirigintza-arloan birmoldatzeko eragiketak. Izan ere, gaur egun oso zaila da eragiketa horiek kudeatzea eta bideratzea.